

AITA KAPUTXINOEI ESKER ONEZ

Mikel Ugalde

Bake eta on:

Jaso dugu, bai, nahi ez genuen berria. Hainbeste denbora, ia mende erdi bat gure artean egin eta gero, Errenteria utzi beharrean aurkitzen zaretela jakin dugu.

Garai batean eraldaketak eta errekonbersioak industria garaietan, ontzioletan, papergintzaren alorrean eta hainbat eremutan ikusten ohituak geunden. Ez nuen, ordea, Eliza horrenbesteraino joko zuenik pentsatzen. Ikusten denez, gizarte giroaren eta egoeraren aldaketa, bokaziorik eza, batz besteko fraideen adina, denera ezin iritsia...erabakigarria izan da horrelako pausoa ematerakoan. Erabaki zaila, latza eta, seguru nago, gehien nozitu duzuenok zuek izan zaretela.

Hartu duzuen erabakia behar bezala barneratzea zaila egiten zaidan arren, nire lehendabiziko pentsamendua eta hitzak esker onekoak direla aitortu nahi dizuet.

Eskerrik asko hainbat urtetan, isilik, apal, esku zabaltasunez, gurekin izan zaituztegunak. Eta hau aitortzerakoan guziok zaituztet gogoan, hasiera eman zeniotenak eta azken momenturaino zaudetenak, bizi zaretenak eta hildakoak, zaharrak eta gazteak...San Frantziskoren kristau elkarte osatuz bizi izan zarete, herrian murgilduak, herritarrekin harreman estuan.

Eskerrak emateko une honetan, fraide askoren izenak eta izanak datozkit burura, arrazoi desberdinengatik gogoan hartzekoak guztiak. Batzuk beharbada ezagunagoak, ereindako haziak fruitu umotu nabari eta ugaria eman duela bistan da. Badira, ordea, isilean, apaltasun osoz, kristau elkartearen eta Errenteriaren esanetara jardun izan zaretenak eta jarraitzen duzuenak.

Zer eman diote, baina, Aita Kaputxinoek Errenteriari? Nahiz eta musikaren eremuan eginikoa oso nabarmena eta begi bistakoa, arrakastatsua izan den, beste norbaitek nirea baino balorazio zehatzagoa, osoagoa egiteko aukera izango du. Nik beste alderdi batek helduko diot



Lehen anaidia: Bedaioko Faustino, Zumaiako Remigio, Bedoñako Jesús, Larraulgo Bernabé eta Aquerretako Doroteo

Lehenik eta behin esan behar dut, zareten bezala onartu eta maite zaituztegu- la, zuen alde on eta hutsuneekin. Aita San Frantziskoren izpiritua eta erakutsiak gogoan hartu eta bizi izan dituzue gure artean eta hori nabaria da. Urte askotako lana izan da, historia oso batean biltzea mereziko lukeen ibilbidea. Guztia hemen aipatzerik ez baita, parrokiaren bilakaerarekin zer ikusi zuzena duten bizpahiru puntu, era desordenatuan gainera, aipatu baino ez dizkizuet egingo.

Haurrak gogoan

Ebanjelioak dioenez, maiteak zituen Jesusek haurrak, are gehiago, guztiok nola- bait haur bihurtzeko dei eta gonbitea luzatu zigun. Zuek ere ederki bete duzue Jesusen gogoan. Udaldiko Quintanarreko kanpaldian eginikoak ez dira gauetik goizera ahazte- koak. Zenbat eta zenbat haur eta gaztetxo ez ote da pasa udaleku horretatik? Zenbat on ez ote diete egin izadi giro atseginean, lagunarte gozoan, alaitasunean, bizi izan- dako esperientziak? Badakit zer erantzungo didazuen: udalekuetan eginikoa ez dela frai- deen lana bakarrik, guraso, eliztar eta gazte asko inplikatu izan dela, lana serio egin duen

talde oso baten lorpena dela. Eta egia da. Baina ezin uka aitzindari izan zaituztegu- la, bertan ereindako haziak dagoeneko fruitua eman duela.

Katekesiari begirada bat ematen bazaio beste horrenbeste. Fatimako Andre Mariaren parrokiaren irekiak egon zarete nornahi har- tzeko, ez nongoa den, ez nolako familiakoa den ez nola pentsatzen duten begiratu gabe. Ateak zabalik, beraz. Haurren mundua ezagu- tzen duenak badaki, bestalde, lan nekagarria dela hori, pazientzia handia eskatzen duen ahalegina dela.

Gazteak ere maite dituzue. Nahi baino gutxiago hurbiltzen bada ere, inguratzen diren guztiei ateak zabaltzen dizkiezue. Sendotza sakramenturako ibilbidea dela, kanpaldirako monitoreak prestatzea, inaute- rietan koadrila ugaria martxan jartzea...

Eskerrik asko

Eskerrik asko elizkizunak hainbesteko maitasunez prestatzen dituzuelako. Bataioak, lehen jaunartzeak, ezkontzak, hiletak... gogoz, ilusioz, behar den ahalegina eskainiz, ospa- tzen dituzuelako. Horren lekuko da hainbat eta hainbat familia, ospakizu- nen baten inguruan hurbiletik sumatu izan baitute parroki- ren taupada. Egia da zer hobetu- tu badela, baina bistan da eginikoa ez dela ahuntzaren gauerdiko ezula.

Eskerrik asko gaixoak buru- bihotzetan barneratuak dituzue- lako, eskerrik asko gaixoaldiak jotakoan fede eta duintasun osoz bizi izan duzuelako.

Eskerrik asko, parrokiaren benetan eliztarron elkarte gisa eraikitzen ahalegindu zaretelako

Eskerrak ematen dizkizuet eta bat egiten dut beren esker- ona erakutsi nahi dizueten guz- tiekin. Halabeharrez, bazoaz- te baina ez gure bihotzetik. Esperientzia bikain bat elkarrekin bizitzeko aukera izan dugu eta oroitzapen horrek ez du gugan- dik nolanahi alde egingo.

Ez adiorik. ■

